

**Duela zenbait urte, Hazparneko Lurraldeak asiako liztorraren hedatzearen kontrako politika eramaiten du, neurri hauek hartuz :**

- Erreginen harrapatzeko arteen pausatzea primaderan
- Ohantzeen zerrendatzea eta geolokalizatzea
- Arteak erlezainen esku emaita kofoinen ondoan ezar ditzaten udan

**Asiako liztorra ezagutu**



*Source fevildec.*

Vespa velutina asiatic datorren liztorra da, eta hunen presentzia Frantzian 2006 urtean aipatua izan da lehen aldikotz. Frantzian lekukotu direnak nigrithorax barietatekoak dira, **kolore ilunekoak dira, laranja pixka batekin azken segmentuan**

Hemen duzue informazio fitxa bat, liztorra aurkezten duena, honen suntsitzeko egiteko molde onak eta harrapatzeko erabili behar diren moldeak : [Télécharger La Notice d'informations sur le frelon asiatique](#)

Ez dudarik ukan ohantzeak seinalatzea zuen Herriko Etxera edo Lurralde eremuko bulegora deituz, eta orri hau itzuliz : [Télécharger le Formulaire de recensement des frelons](#)